araba@stee-eilas.org bizkaia@stee-eilas.org gipuzkoa@stee-eilas.org nafarroa@stee-eilas.org

# ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 21

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa martxoak 26

Azken bolada honetan, egindako parekideetan gauza asko airean geratu dira eta zuzendaritza batzordea elkartu denean hurrengo erabakiak hartzea erabaki du.

## 1. LANPOSTUEN ZERRENDA BERRIA

Jadanik, onartu da lanpostuen zerrenda, eta buletinean apirilaren 8an, argitaratuko da, honetan 871 plaza atera dira.Honek, LEP honetan askoz ere plaza gehiago esleitzeko aukera ematen du.

## 2. LEP

Atxikituta bidaltzen dizuegu plazen inguruan egindako laburpena zuek begiratzen eta pentsatzen hasteko.Kontuan izan, 695 plazen artean erabakitzea badaukagu ere, 500 baino ez direla eskainiko.

## 3.BAREMAZIO/BIRBAREMAZIOA

Zuzendaritza batzordeak erabaki du aurten, hilabete honetan, epea zabaltzea baina historikoentzat baino ez. STEE-EILASen ustez hau ez da bidezkoa, azken batean, badaude ibiltari eta ordezko asko lanean egon direnak urte osoan, eta ez da justua baremazioa ez egiteagatik postu berberan geratzea beraz, STEE-EILASetik jarraituko dugu eskatzen birbaremazioa guztiontzat zabaltzea.

## 4.HISTORIKOEN AKORDIOA

Langile hauentzako lortu den akordioa ez da guk defenditu duguna izan,hau da 18 urteko antzinatasuna edukita, LEP gainditu dutenak bere lanpostuan mantenduko dira jubilatu arte.

STEE-EILASetik beti defendatu dugu akordio honetan jende gehiago sartu beharko zela.Hala ere, honen inguruko informazio zehatzagoa laster helaraziko dizuegu.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C | 01001 Gasteiz | ☏ 945 14 11 04 | 🖷 945 14 43 02 | araba@stee-eilas.org |
| BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu) | 48003 Bilbo | ☏ 944 10 02 98 | 🖷 944 10 13 60 | bizkaia@stee-eilas.org |
| GIPUZKOA:Baso-txiki 30-34 (atzealdea) | 20015 Donostia | ☏ 943 46 60 00 | 🖷 943 45 36 27 | gipuzkoa@stee-eilas.org |
| NAFARROA: Descalzos 72 (lonja) | 31001 Iruñea | ☏ 948 21 23 55 | 🖷 948 27 00 48 | nafarroa@stee-eilas.org |

**5.HURRENGO URTEKO LEP**

Hurrengo urtean egingo den LEPren deialdia jaso dugu eta aztertzen ari gara, aurten baino hobeto gauzatu ahal izateko, apirilaren 1era arte daukagu aportazioak egiteko, beraz ideiaren bat baduzue jarri gurekin harremanetan.

Horretaz gain, jakin dugu deialdi honetan 235 plaza eskainiko direla .

**6.ORDAINSARIAREN EGUNERAKETA**

Zuzendaritzak batzordeak, guk egindako proposamenak kontuan izan barik, %3ko igoera aplikatzea erabaki du eta, apirileko nominan atzerapenak eta soldata eguneratua jasoko dugula jakinazi digu.

Dena den, guk ez dugu gai hau itxitzat eman eta berriz aterako dugu hurrengo mahaietan.


| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C | 01001 Gasteiz | ☏ 945 14 11 04 | 🖷 945 14 43 02 | araba@stee-eilas.org |
| BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu) | 48003 Bilbo | ☏ 944 10 02 98 | 🖷 944 10 13 60 | bizkaia@stee-eilas.org |
| GIPUZKOA:Baso-txiki 30-34 (atzealdea) | 20015 Donostia | ☏ 943 46 60 00 | 🖷 943 45 36 27 | gipuzkoa@stee-eilas.org |
| NAFARROA: Descalzos 72 (lonja) | 31001 Iruñea | ☏ 948 21 23 55 | 🖷 948 27 00 48 | nafarroa@stee-eilas.org |